



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

Gizarte Politikako Departamentua
Departamento de Política Social

Gipuzkoa
zure ondoan



ESPARRU ESTRATEGIKOA

**Gipuzkoan Enplegu
Bereziaren Eredua
sendotzeko**

2011ko martxoa

AURKIBIDEA

1. SARRERA	3
2. ENPLEGU BEREZIAREN EREDUA, GIPUZKOAKO GIZARTE SOZIALKI ARDURATSUAREN OINARRIA.....	4
3. DESGAITASUNARI BURUZKO EUROPAKO 2020 ESTRATEGIA, ERREFERENTZIA- ESPARRUA.....	6
4. ESPARRU ESTRATEGIKOA: JARDUERA ARLOAK.....	7
5. GIPUZKOAN DESGAITASUNAK DITUZTEN PERTSONAK ENPLEGATZEKO MAHAIA.....	14



1. SARRERA

Gipuzkoan desgaitasuna duten pertsonen enpleguaren bidez arreta emateak indargune garrantzitsuak agertu ditu azken 30 urteotan eta Gipuzkoako funtsezko erreferentzia bilakatu da, ez soilik enplegu bereziaren arloan, baizik eta Gipuzkoako gizartean bertan ere.

Desgaitasuna duten pertsonentzako arreta-eredu horretan, edo Gipuzkoako Enplegu Bereziaren Ereduan, Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentuak berehala hartu du bere gain presentzia aktibo garrantzitsu bat, eskumen mugatuak izanagatik ere, eta hori agerian geratzen da sektoreko bi erakunde nagusien kapital sozialeko eta administrazio kontseiluetako partaidetzan; hots, Gureak taldean eta KL-Katealegailan.

Aldaketa ekonomiko, sozial eta instituzional bizkorren egungo agertokian, beharrezkotzat jotzen dugu arreta-eredu hori indartzea enplegu bereziaren eragilearen ekintza koordinatua oinarri hartuta, betiere etorkizunean azal daitezkeen zailtasunei aurre hartuz; horietako batzuk, gainera, hautemangarriak dira jada.

Horretarako, Esparru Estrategikoaren helburua Gipuzkoako Enplegu Bereziaren Eredua sendotzeko eta finkatzeko oinarriak jartzea da, tresna gisa Gipuzkoan desgaitasuna duten pertsonen enplegurako mahaia eratzea proposatzen duelarik.

Dokumentu honetan Ereduaren gakoak jaso eta ordenatu nahi dira, baita bere indartze estrategikorako jardura eta lankidetzaren arloak ere, betiere enpleguaren bidez desgaitasuna duten pertsonen eta oro har gizarte marjinaltasun eta bazterketa arriskuan daudenei arreta emateko helburuarekin.



2. ENPLEGU BEREZIAREN EREDUA, GIPIZKOAKO GIZARTE SOZIALKI ARDURATSUAREN OINARRIA

Gipuzkoako Enplegu Bereziaren Eredua bere izaera sozialarengatik eta desgaitasuna duten pertsoneri, eta, eskuarki, lan-esparruan ahulenak diren pertsoneri, arreta emanez ongizate orokorrera egiten duen ekarpenarengatik nabarmentzen da.

Lan egiteko adin taldean (16 eta 64 urte bitartean) dauden eta desgaitasuna duten 16.800 pertsona daude Gipuzkoan, INEren 2006ko Desgaitasunaren Inkestaren arabera; hots, adin talde horretako Gipuzkoako biztanleriaren % 3,5. Urritasunen baten ondorioz, pertsona horiek muga handiak dituzte jarduera oinarritzkoenak eta arruntenak gauzatzeko.

Desgaitasuna duten Gipuzkoako pertsonen % 40ak lan egin nahi du eta %37ak enplegu bat du. Enplegua duten pertsonen proportzio horrek Euskal Autonomia Erkidegoko beste bi lurraldeetakoak gainditzen du (% 31 batez beste), baita Estatukoa ere (% 28).

Desgaitasuna duten pertsonen enplegua Gipuzkoako enplegu osoaren % 1,9 da; datu hori Europako herrialde aurreratuenetakoetatik hurbil dago.

Emaitza on horiek Gipuzkoako Enplegu Bereziaren Zentroen jarduera islatzen dute, baita Gipuzkoako gizartea sozialki arduratsua izan dadin, hau da, ahulenak behar bezala artatzen dituen lurraldea izan dadin, egiten duten ekarpen handia ere.

Ekarpen horretan, pertsonen okupazioaren bidez eta Gipuzkoako Enplegu Bereziaren Ereduari ardatz gisa, arreta ematen zaien pertsona guztien giza bideratzea barne hartzen da, pertsona horien bizitzako etapa eta esparru guztietan emandako konpainia eta laguntza gisa ulertuta.

Gainera, Zentroetan, hasieratik, enpresa eta merkatu ikuspegia izan dute, kudeaketa biziki kualifikatuarekin eta ekonomikoki dinamikoak eta sozialki berritzaileak diren jarduerak eta enpresak sortuz. Jarduera horiek zuzenean laguntzen diote lurraldearen lehiakortasunari, eta ez soilik sozialki (kohesio eta gizarteratze gisa ulertuta), baizik eta baita ekonomikoki eta arlo enpresarialean ere.

Esparru horretan, sektoreko bi erakunde handiak nabarmentzen dira: Gureak taldea eta KL-katealegia. Batak zein besteak hasiera batean enplegu bereziaren erregimenari dagokion betekizuna gainditzen dute. Beraien ikuspegi globalak, enplegu erregimenaz gain, arreta espezifikoak eta pertsona bakoitzaren banakako segimendua ere hartzen ditu barnean. Enpresa



horietan pertsona bakoitza erregimen okupazionalan sartzen denetik merkatu arruntera igarotzen denera arteko ibilbide osoa jarraitzen da.

Aipatu dugun moduan, lehiakortasunaren ikuspegitik, Gipuzkoako Enplegu Bereziaren Eredua lurralde osoan errotuta dago eta bertako enpresa-ehunean integratuta dago, Gipuzkoarentzako lehiakortasun-faktore bat izanik. Faktore hori Gipuzkoako enpresek ekoizpen-faseak kanporatzeko duten beharraren ondorio da, Ereduan egungo eskakizunetara egokitutako eskaintza bat aurkitzen baitute: malgutasuna eta hurbiltasuna, serie laburrak, gero eta maila teknologiko handiagoa eta kostu egokiak.

Gainera, Enplegurako Zentro Berezien fakturazioaren zati bat Gipuzkoaz kanpoko enpresetatik dator, eta hori onura gehigarria da lurraldearentzat.

Arretaren ikuspegitik, zentro horiek Ereduan lan egiten duten pertsonen arreta-kostuak murrizten laguntzen dute. Horren adibide gisa jo daiteke sektoreko bi erakunde nagusiek 8 milioi euro inguru aurrezten dituztela urtean desgaitasun intelektuala eta buruko gaixotasuna duten pertsonen arreta-zerbitzuetan eta langabetuen kolektiboari arreta emateko zerbitzuetan.

Horrez gain, Ereduak kotizazio gabeko pentsioetan aurrezten du, baita osasun-zerbitzuetan eta langabetutako pertsonen familiei eman beharreko zerbitzuetan ere.

Azkenik, Ereduaren jarduerak, arretan aurrezteaz gain, Foru Ogasunerako itzulera garrantzitsuak sortzen ditu. Zehazki, sektoreko bi erakunde nagusiek, 2009an, zergetan 30 milioi euro inguru ordaindu zituztela kalkulatu a (PFEZ, BEZ, gizarte-kotizazioak...).

Azken batean, Gipuzkoako Enplegu Bereziaren Ereduak aktiboki laguntzen du Gipuzkoako hazkunde adimentsu, jasangarri eta integratzailean. Hori dela eta, eta Ereduak lurraldean duen garrantzia ikusirik, ezinbestekotzat jotzen dugu bai bere ekarpena bai Eredua Gipuzkoako lurralde-estrategia globalen barnean sartzea.



3. DESGAITASUNARI BURUZKO EUROPAKO 2020 ESTRATEGIA, ERREFERENTZIA-ESPARRUA

“Desgaitasunari buruzko Europako Estrategia 2010-2020: mugarik gabeko Europa baterako konpromiso berritua” lana, 2010eko azarokoa, Gipuzkoako Enplegu Bereziko Ereduaren erreferentzia-esparrua da.

Europako Estrategiak ezinbestekotzat jotzen du desgaitasuna duten pertsonak erabateko partaidetza izatea bizitza ekonomiko eta sozialean. Erabateko partaidetza hori Europako Estrategia 2020k arrakasta izateko baldintzat jotzen du Europako Batzordeak, hazkunde adimentsu, jasangarri eta integratzailea sortzeko ahaleaginean.

Europako Estrategiak adierazten duen moduan, pertsona guztiak barne hartzen dituen gizarte bat eraikitzeak merkatu aukerak eskaintzeko eta berrikuntza sustatzeko ere balio du. Gainera, enpresa munduko argudio sendoak daude zerbitzu eta produktuak «guztientzako eskuragarri» izatea bermatzeko, besteak beste adineko kontsumitzaileen eskaera gero eta anitzagoa eta oparagoa baita. Krisi ekonomikoak eragin negatiboa izan du desgaitasunen bat duten pertsonen egoeran, eta, ondorioz, orain are eta beharrezkoagoa da jardutea.

Estrategiaren helburu orokorra desgaitasuna duten pertsonak gaitzea da, beren eskubide guztiez gozatu ahal izan dezaten eta Europako ekonomian eta gizartean bete-betean parte hartzeko aukera izan dezaten.

Estrategiaren funtsezko arloetako bat enplegua da; izan ere, kalitatezko enpleguek independentzia ekonomikoa bermatzen dute, lorpen pertsonalak sustatzen dituzte eta babes onena eskaintzen dute pobreziaren aurrean.

Dena den, desgaitasuna duten pertsonen enplegu tasa txikia da, eta, hazkunde helburuekin lotuta, Estrategiaren apustua garbia da: pertsona gehiagok eskuratzea diru sarrerek lan-merkatu «ireki» eta babestuan ordaindutako lan jarduera bat burutuz.



4. ESPARRU ESTRATEGIKOA: JARDUERA ARLOAK

Gipuzkoako Enplegu Bereziaren Eredua sendotzeko Esparru Estrategikoaren helburua gertatzen diren eta aurreikus daitezkeen aldaketa ekonomiko, sozial eta instituzionalei behar bezala erantzutea da. Horien artean, honako hauek aipa daitezke:

- Egoera ekonomiko zailak jardutera behartzen du. Ereduko enpresek krisiari Gipuzkoako enpresa-ehunaren antzeko baldintza eta emaitzekin aurre egin dioten arren, krisiaren eraginez arreta jaso duten pertsona kopurua murriztu egin da.
- Eredua zatikatu eta “ahultzeko” arriskua dago, gero eta eragile gehiago daudelako sektorean eta horren gainean jarduera-nahi desberdinak daudelako.
- Halaber, Ereduak lorpen handiak eskuratu dituen arren, zalantzan jarri dute zenbait eragilek eta Ereduaren finkapena zalantzan jartzen duen “pentsamendu-korronte” bat egon badago.

Mehatxu horiei erantzuteko, Eredua Indartzeko Esparru Estrategikoa bertako eragileen arteko lankidetzaren estuan oinarrituta egituratzen da.

Eredua bera eta Ereduari loturiko hausnarketa, *sine qua non* baldintza eta abiapuntu gisa, partaidetza aktibo eta engaiatuarekin egituratzen dira, Gizarte Politikako Departamentuarekin eta sektorean garrantzitsuenak eta erreferentziazkoak diren bi enprekin lankidetzan: Gureak taldea eta KL-katealegia; hau da, arreta jasotzen duten pertsona gehienak okupatzen dituzten enpresak.

Lehen hurbilketa gisa, Ereduko bi eragile nagusiek egoki eta beharrezkotzat jotzen dute elkarrekin eta administrazioarekin lankidetzan aritzea, Eredua sendotzeko eta horri erantzuteko gaitasun handiagoa emateko, epe laburrean eta ertainean, dauden mehatxuen aurrean.

Lankidetzaren hori, halaber, enplegu bereziaren gainerako enpresetara hedatzea planteatzen da, baita enplegu sozialari loturiko beste eragile batzuetara ere (gizarteratze-enpresak).



Esparru Estrategikoa garatzen duten jarduera esparruak honako hauek dira:

- Desgaitasuna duten pertsona guztien arreta
- Gizarte bazterkeria arriskuan dauden pertsonak gutxika barne hartzea
- Enplegu berriak sortzea
- Enpleguaren kalitatea bermatzea eta hobetzea
- Enplegu arruntera igarotzea

Jarraian, esparru estrategiko horiek guztiak aurkeztuko ditugu.



▪ Desgaitasuna duten pertsona guztien arreta

Enplegu Bereziko Ereduak arreta, okupazioa eta enplegua ematen dizkie desgaitasuna (psikikoa, fisikoa, sensoriala eta buruko gaixotasuna) duten pertsonari, baita bazterketa arriskuan dauden kolektiboko kide batzuei ere.

Enplegu Bereziko Zentroek funtzio bikoitza betetzen dute: arreta soziala eta enplegua. Ereduan ibilbide guztia barne hartzen da, desgaitasuna duten pertsonak erregimen okupazionalaren bidez integratzen hasi eta merkatu arruntean sartu arte. Horrela ulertzen dute Gipuzkoako enpresa nagusiek, enplegu bereziko enpresetarako definitutako helburu soziala gainditzen baitute.

Eskuratutako lorpenak handiak badira ere, Ereduak ez dizkie enplegu aukerak ematen kolektibo hauetako pertsona guztiei. Krisiaren ondorioz langabezian geratu direnez gain, buruko gaixotasunak dituzten enplegu eskatzaileen eskaera ez da ase. Halaber, nabarmentzekoa da egungo funtzionamendu sistemak ez duela behar adina eragin izan desgaitasun maila handiagoak dituzten pertsonen enpleguan. Betetzeke dagoen hutsune hori betetzeak, ziurrenik, gaur egun itxaropenik ez dutelako aktibatzen ez diren enplegu eskatzaileak aktibatuko lituzke. Beraz, Enplegu Bereziko Eredua arrakastatsutzat jo daitekeen arren, bide handia dago oraindik egiteko.

Halaber, desgaitasun psikikoa edo fisikoa duten pertsonen kolektiboan hazkunde nabarmenik aurreikusten ez den arren, aurreikusten da eskaera gehiago egongo direla buruko gaixotasunak dituzten pertsonen kolektiboaren aldetik.

Testuinguru horretan, Ereduaren erronka laguntza berezia behar duten gipuzkoarrei enpleguaren bidez arreta osoa ematea da.



▪ Gizarte-bazterketa arriskuan dauden pertsonak gutxika barne hartzea

Ereduko enpresak bazterkeria arriskuan dauden pertsonen osatutako kolektiboko kideak barne hartzen ari dira gutxika, hasiera batean Eusko Jaurlaritzarekin egindako hitzarmen baten bidez.

Horren harira, Eredua pertsona horiek hartzeko behar bezala prestatuta dagoela uste da, baita pertsona horiek barne hartzeak Ereduko zentroek eskaintzen dituzten lan eta zerbitzuen tipologia osatzea eta zabaltzea ahalbidetzen duten profil pertsonal eta profesionalak eskainiko lituzkeela ere. Horrez gain, Gureak Taldeak, Kutxa Zeharo programaren bidez, lan bitartekaritzako bulegoak ditu bazterketa arriskuan dauden pertsonentzako.

Baina, gaur egun, kolektibo hori gizarteratzeko legedia espezifikoari lotuta dago eta arreta emateko entitate eta sareak ditu (Gizatea, Sartu, gizarteratze-enpresak). Enpresa horiek administrazioaren laguntzak ere jasotzen dituzte, batzuetan Gipuzkoako Eredukoak bertakoak baino handiagoak izan daitezkeenak. Ildo horretan, egokia dirudi kolektibo horrek Eredua etorkizunean parte hartzea (Holandako adibidea jarraituz, non lan-bazterkeria arriskuan dauden kolektiboen ikuspegia zabalagoa baita).

Bazterkeria arriskuan dauden pertsonekin lan egiten duten erakundeak, hala nola Emaus eta Sartu, Eredua osagarritzat har daitezke, eta konbergentzia eremuak hautematen dira lankidetzaren ikuspegitik, orobat antolamendu eta planifikazio publikoaren ikuspegitik. Gipuzkoako bi erakunde nagusiek erlazio dinamikoa mantentzen dute sare horiekin eta nolabaiteko lankidetzat dago, nahiz eta lankidetzat hori egituratzea eta horretan sakontzea komeni den.

Ikuspegi estrategikotik, gizarte bazterkerian dauden kolektiboetako kideen enplegua handitzearekin batera, desgaitasuna duten eta bazterkeria arriskuan dauden pertsonen arreta ematen dieten erakundeekiko konbergentzia ere lortu behar da.



- Lanpostu berriak sortzea

Gipuzkoako Enplegu Bereziaren Ereduak lanpostuak sortu behar ditu, eta, aldi berean, egungoei eutsi behar die. Horretarako, ibilbide lehiakorra eta ziklo ekonomikoaren faseetara egokitzeko azaldutako gaitasuna izan behar ditu abiapuntu.

Enpresa horien lan bilketak honako hauek izan ditu oinarri: nagusiki industriako azpikontratazioari lotutako jarduerak eta, gero eta gehiago, zerbitzuetako jarduerak, eta Gipuzkoako zein kanpoko bezeroei eman die arreta.

Horretarako, eskaintza eta gaitasunak bezeroen eskakizunen etengabeko bilakaerara egokitzen joan dira enpresak, batez ere industria jardueran; izan ere, eskatzen diren lanek gero eta prestakuntza handiagoa eta inbertsio handiagoak egitea eskatzen dute.

Enpresen inguru lehiakorrera etengabe egokitzean datza erronka estrategikoak, eta ondorengo hauek hartu behar ditu abiapuntu: eskaintza dibertsifikatzea eta handitzea, jarduerak berrietarantz, eskaintza bezeroen beharretara egokitzea, lantaldeak prestatzea, berrikuntza espazioak sortzea eta ekipamenduak egokitzeko inbertsioak egitea.

Baita kanpoan bezeroak erakartzeko ekintza bateratua eta, prestakuntza, I+G+b, ekipamendu, kalitate eta kudeaketa hobetzeari dagokienez, inbertsioak eta jarduketak optimizatzea ere.

Hori guztia bateragarria izango da sentsibilizazio lanarekin eta desgaitasun maila handiagoak dituzten pertsonentzako merkatu-nitxo berriak identifikatzearekin.



- Enpleguaren kalitatea bermatzea eta hobetzea

Ereduko erakundeek ikuspegi orokorra dute eta pertsona bakoitzarentzako arreta espezifiko eta jarraipen pertsonalizatua barne hartuko dute okupazio-zentroen, enplegu bereziaren eta lan egiteko muga gehiago dituzten pertsonentzako arretaren programa osoaren bidez.

Erakunde nagusiek pertsona baten ibilbidea estaltzen dute: okupazio erregimenean sartzen denetik merkatu arruntera pasatzen den arte.

Horretarako, pertsona baten lan-bizian zehar sortzen diren egoera ezberdinetarako aukerak eskaintzen dituzten programak egitea -ereduak egiten duen bezalaxe- funtsezkoa da. Ereduak programa horiek hartzen ditu barne eta, oro har, lanean ari diren pertsonak pozik daude ereduarekin.

Hala ere, Ereduaren arabera enpleguak lortutako kalitate mailari eusteko eta berau hobetzeko sektoreko eragileek zein administrazio publikoak jarduketa espezifikoak egin behar dituzte.

Administrazio publikoak sektoreko enpresek enplegatutako pertsonari arreta jarraitua eta etengabea ematen dietela bermatu behar du, pertsona horientzako enplegu publikoko eskaintza babestu behar du eta enpresek populazioaren sektore honekiko dituzten konpromisoak erregulatu behar ditu.



- Enplegu arruntera igarotzea

Arreta jasotzen duten pertsonak enplegu arruntera igarotzeko prozesuak bultzada eta sakontasun handiagoak behar ditu.

Horretarako, Foru Aldundia eta Gizarte Politikarako Departamentua igarobide hori bultzatzen saiatzen diren programak abian jartzen ari dira. Foru Aldundiak, esate baterako, Krisiaren Aurkako Planaren baitan 260 pertsoneri eman die lana praktiketako programetan.

Enplegu arruntera igarotzeko prozesuaren erronkak, lan esparru arruntak desgaitasunak dituzten pertsoneri lana emateko aukera gehiago garatzeko eta zentroetan aipatutako igarobidea erraztuko duten neurriak hartzeko beharra jartzen du mahai gainean.

Halaber, lan merkatuan txertatzen laguntzera bideratu behar dira politika publikoak eta araudia betetzen dela kontrolatu behar da. Horrez gain, Gipuzkoako erakunde garrantzitsuekin batera programak sustatu behar dira.



5. GIPUZKOAN DESGAITASUNAK DITUZTEN PERTSONAK ENPLEGATZEKO MAHAIA

- Mahaia enplegu bereziarekin erlazionatutako eragileak lankidetzan aritzeko tresna gisa

Gizarteak eredua goraipatzen du bere gizarte funtzioagatik; izan ere, desgaitasunak dituzten edo baztertuak izateko arriskua duten pertsonak lanari dagokionez ahalik eta gehien garatzera bideratuta dago. Funtzio hori garatzeko, interes orokorreko ikuspuntutik, funtzionatzeko modu parte-hartzaile eta planifikatua ez ezik, erakundeekiko lankidetzan erreferentea izan behar da.

Sektoreko enpresek urte asko daramate erakundeekin, batez ere Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politikarako Departamentuarekin, lanean. Eta, era berean, beste erakunde batzuen, tartean, Enpleguko Institutu Nazionalaren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntza garrantzitsuak jaso dituzte. Horiek horrela, Lanbidek kudeatzen dituen enpleguko politika aktiboak Eusko Jaurlaritzari pasatzeak ez du lankidetzara esparrua aldatuko.

Foru Aldundia eta Gizarte Politikako Departamentua Ereduaren funtsezko euskarri izan dira eta dira, eta, aipatu den bezalaxe, bi erakunde nagusien (Gureak taldea eta KL-katealegia) kapitalean eta administrazio kontseiluetan parte hartzen dute. Sektoreko enprekin, gainera, harreman egokia dute. Foru Aldundiak diruzko ekarpen garrantzitsua egiten die horiei eta arreta jasotzen duten pertsonentzako lanpostu onak mantentzen eta sortzen laguntzen du.

Zentroek, bestalde, Gizarte Politikarako Departamentuarekin batera lan egiten dute beren okupazio esparruko politika publikoen eta enplegu bereziaren planteamenduan eta garapenean. Talde multiprofesionalei esleitutako funtzioetan laguntzen dute, esaterako. Foru Aldundiarekin duten harremanaren barruan; lankidetzara hori etorkizunerako sendotzea oso desiragarria litzateke.

Gipuzkoan eredua garatzeko eta mantentzeko beste funtsezko erakundea Enplegurako Institutu Nazionala da. Eusko Jaurlaritzako Lanbidek ditu arlo horretako eskumenak. Administrazioaz gain, Gipuzkoako beste erakunde batzuekin dago harremanetan Eredua.

Sektorearen eta Gizarte Politikarako Departamentuaren arteko erlazioa sendotzea eta Eusko Jaurlaritzarekin eta gainerako erakundeekin lankidetzara aritzea beharrezkoa da enplegu bereziarekin lotutako politiken arloan.



Gipuzkoan desgaitasunak dituzten pertsonak enplegatzeko mahaiaren, Gizarte Politikako Departamentuak bultzatutako mahaiaren, inguruan proposatzen eta egituratzen da lankidetzeta hau, parte-hartze eredu dinamikoaren barruan, eta Gipuzkoan desgaitasunak dituzten pertsonen arreta osoa eta iraunkorra emateko helbururekin, alegia, pertsona ahulenekin bidezkoagoa eta solidarioagoa den lurraldearekin konprometituta dauden sektoreko eragile guztiei irekitzen zaie.



▪ Helburua

Desgaitasunak dituzten pertsonen multzoak oso pertsona talde heterogeneoa biltzen du. Agerikoak dira, batetik, pertsona horiek lan egiteko dituzten zailtasunak -are gehiago egun bizi dugun lan eta ekonomia krisian-, eta, bestetik, horien prestakuntza maila txikiagoa.

Horrez gain, pobrezian bizitzeko arrisku handiagoa eta ahultasun gehiago dituzte eta horrek prestazio publiko pasiboetan eragina du, baita gizarte eta osasun zerbitzuen eskaeran ere.

Honako hau da egoera honi aurre egiteko mahaiaren helburua:

- Gipuzkoan desgaitasunak dituzten pertsonentzat lanpostu gehiago eta hobeagoak sortzea.
- Pertsona horiek «gidatzea», alegia, bizitzan zehar eta bizitzako esparru ezberdinetan beraiekin batera egotea.
- Gipuzkoaren hazkuntza zentzuduna, iraunkorra eta integratzailearen alde egitea modu aktiboan.



▪ Ezaugarriak eta lankidetzak esparruak

Gipuzkoan desgaitasunak dituzten pertsonak enplegatzeko mahaia eratzea proposatzen da. Horren helburua honako hau da: desgaitasunak dituzten pertsonentzako enplegua ematearen bidezko arreta planifikatzea, bideratzea eta koordinatzea, eta arreta horri koherentzia esparru egonkorra eta estrategikoa ematea.

Mahaia irekia izango da eta Gipuzkoako Foru Aldundiak (Gizarte Politikako Departamentuak) eta sektoreko erakunde nagusiek (Gureak Taldeak eta KL-Katealegia) hartuko dute parte hasieran, alegia, abian jartzeko fasean. Gainera, desgaitasunak dituzten pertsonen enpleguarekin eta, oro har, gizarte enpleguarekin erlazionatutako irabazi askorik gabeko beste gizarte erakunde batzuk sartzea planteatzen da.

Sektore osoa egungo eredua indartzeko eta, enpleguari dagokionez, ahultasun egoeran dauden pertsonentzako arreta zaindu eta hobetzeko helburuaren inguruan biltzeko funtzioari erantzuten dio.

Adierazgarritasunak eta gardentasunak egingo dute legezko mahaia, eta solaskide erabilgarria, fidagarria eta kolaboratzailea izango da Gipuzkoako gizartearen, beste erakunde batzuen eta sektorearekin lotutako entitateen (enpresak, ekimenak, proiektuak) aurrean.

Azken batean, Foru Aldundiaren eta sektoreko hainbat elkarteren arteko elkargunea izango da. Bertan, jarduteko, parte hartzeko eta laguntzeko ildoak definitu eta egiaztatuko dira eta desgaitasunak dituzten eta, oro har, lan merkatuaren aurrean ahulak diren pertsonen arduratzen diren entitateentzako gune irekia izango da.

Lurraldean lan egiten duten entitateak garrantzi berekoak ez direnez, helburu eta funtzionatzeko moduarekin batera, parte hartzeko protokoloak, lan plana eta eraginkortasunarekin lotutako beste alderdi batzuk definituko dituen eredua zehaztea proposatzen da esparru malgu baten barruan.

Mahaia eraginkorra izateko eta mahaiaren funtzionamenduaren eraginkortasuna bilatzeko pixkanaka-pixkanaka abiarazi behar da mahaia, azkar jarri ahal izan dadin martxan eta jarduketak modu progresiboan egin ahal izan daitezen.



Mahaiarentzako lau lankidetzak esparru definitzen dira. Honako hauek dira:

- Desgaitasunak dituzten pertsonak enplegatzeko politikak eta jarduketak bideratzea eta koordinatzea eta baztertuak izateko arriskua duten pertsonen arreta ematen laguntzea
- Arreta jasotzen duten pertsonen lan kalitatea eta baldintzak zaintzea eta hobetzea
- Gipuzkoaren hazkuntza zentzudun, iraunkor eta integratzailearen alde egitea modu aktiboan
- Gizarte enpleguaren garrantzia hedatzea eta Gipuzkoako gizartea horren inguruan sentibilizatzea

Jarraian, esparru horietako bakoitza eta jardueren jarraipena egiteko adierazleak deskribatzen dira labur-labur.



- Desgaitasunak dituzten pertsonak enplegatzeko politikak eta jarduketak bideratzea eta koordinatzea eta baztertuak izateko arriskua duten pertsonen arreta ematen laguntzea
- Desgaitasunak dituzten pertsonak enplegatzeko politiken -enplegu babestuarenak eta enplegu arruntarenak- definizioan parte hartzea.
- Ekimen berriak planifikatzeko eta arreta jasotzen duten pertsonen lotutako ekimenak lurraldean zabaltzeko laguntza eta aholkuak ematea.
- Baztertuak izateko arriskuan dauden pertsonen arreta ematen laguntzea, eta, horretarako, lan merkatuan txertatzeko politiketan parte hartzea.
- Desgaitasunak dituzten pertsonen enpleguarekin lotutako jarduketak hainbat erakunderekin koordinatzea.

Adierazle nagusia:

- Herrialde aurreratuenekin bat egiteko asmoz, desgaitasunak dituzten pertsonen enplegu tasa handitzea, % 37tik gora iritsiz.

Adierazle osagarriak:

- Generoaren zuloa murriztea enplegu tasan.
- Enplegua lortzeko zailtasun handiagoak dituzten taldeei (buruko gaixotasunak dituzten pertsonen, maila altuko desgaitasunak dituzten pertsonen eta abarri) arreta berezia ematea.
- Baztertuak izateko arriskuan dauden pertsonak laneratzen laguntzea.



- Arreta jasotzen duten pertsonen lan kalitatea eta baldintzak zaintzea eta hobetzea:
 - Pertsonen arreta emateko baldintza egokiak zehaztea, horiek betetzea bultzatzea eta pertsonak enplegatzearikiko gogobetetzea hobetzea.
 - Arreta jasotzen duten taldeentzako enplegu eskaintza sustatzea, eta, ahal den heinean, enplegu arrunterako bidea bultzatzea.
 - Enpresek arreta jasotzen duten pertsonen arreta jarraitua eta etengabea eman diezaieten bermatzea.

Adierazle nagusia:

- Pertsonen enpleguari dagokionez duten gogobetetze mailaren adierazlea hobetzea (soldataz kanpoko baldintzak eta soldata baldintzak).

Adierazle osagarria:

- Desgaitasunak dituzten pertsona gehiago pasatzea enplegu arruntera.
- Eta, nagusiki, duten desgaitasuna dela eta zailtasun handiagoak dituzten pertsonak laneratzea.



▪ Gipuzkoaren hazkuntza zentzudun, iraunkor eta integratzailearen alde egitea modu aktiboan:

- Enpresa erakunde eta entitateetan modu aktiboan parte hartzea lurraldeko gainerako erreferentziako enpresa eta taldeekin batera.
- Lurraldeko foro eta erabaki eta elkarrizketa organoetan parte hartzen jarraitzea eta parte hartzea sustatzea.
- Desgaitasunak dituzten pertsonen arreta ematearekin lotutako kanpoko foroetan parte hartzea sustatzea.

Adierazle nagusia:

- Desgaitasunak dituzten pertsonak enplegatzeko erakundeak modu aktiboan parte hartzen duten erakunde eta foroak.

Adierazle osagarria:

- Desgaitasunak dituzten pertsonak laneratzeko lankidetzaren hitzarmenak sinatzea Gipuzkoako entitate nagusiekin.



▪ Gizarte enpleguaren garrantzia hedatzea eta Gipuzkoako gizartea horren inguruan sentsibilizatzea:

- Pertsona ahulenak enplegatzeko garrantzia eta beharra hedatzea eta horren inguruan gizartea eta erakundeak sentsibilizatzea.
- Desgaitasunak dituzten pertsonak enpresetan enplegatzeari dagokion araudia betetzen den ikustea, araudi hori betetzea sustatzea eta enplegura bideratutako aukerako formulak planteatzea.
- Gizarte enpresek kontratu publikoetan parte hartzea bultzatzea, eta, horretarako, baldintza egokiak zehaztea.

Adierazle nagusia:

- Gizarte enpleguaren eragina eta garrantzia eta horrek aurrekontu publikoetan dituen ondorioak hedatzea.

Adierazle osagarria:

- Desgaitasunak dituzten pertsonentzako arreta ebaluatzeko sistemak kontratu publikoetako irizpidetzat jotzea.